



ARRIETA ALBERDI, Jon

Zuzenbidearen Historiako Irakasle Titularra
Euskal Herriko Unibertsitatea. Zuzenbide Fakultatea.
Manuel de Lardizabal, 2
20009 - Donostia

BIBLID [1137-1951 (1997), 1; 18-27]

Vascones eta Vasconia Accursioren Magna Glossa delakoan

(The Vascones [Basque people] and Vasconia [Basque Country]
in the Magna Glossa of Accursius)

accursiok *Digestumeko* lege bati (D.1.18.3.) egindako iruzkin bat argitaratzea da artikulu honen helburua. Glosa horretan adierazten da gobernadorea gizabanako partikular bat baino ez dela probintziatik kanpo irteten denean, eta ezin dela orduan bere *imperiuma* egikaritu. Accursiok zehazten du bere glosan euskaldunak tesi honetaz baliatzen direla Ingalaterrako erregearen agintea ukatzeko. Glosagile hau ez dago ados horrekin, uste duelako erregeak bere jurisdikzioa delega dezakeela, epaiak herriko ohituren arabera eman behar izango baditu ere.

Se aporta la transcripción de una glosa de Accursio a una ley del Digesto (1.18.3.), en la que se especifica que el gobernador de la provincia es un simple particular cuando sale de ella, y no puede entonces ejercer su "imperium". Accursio recuerda en su glosa que los vascos aplican esta tesis al rey de Inglaterra y no se consideran sujetos a él. Discrepa el glosador, y alega que siempre podrá el rey delegar su jurisdicción, si bien habrá de ejercerse conforme a las costumbres de la tierra.

an fourni la transcription d'une glose d'Accurse concernant une loi du Digest (1.18.3), dans laquelle il est spécifié que le gouverneur de la province est un simple particulier lorsqu'il en sort, et ne peut alors exercer son "imperium". Accurse rappelle dans sa glose que les basques appliquent cette thèse au roi d'Angleterre et ne se considèrent pas assujétis à lui. Il est en désaccord avec le critique et dit que le roi pourra toujours déléguer sa juridiction, bien qu'elle devra se pratiquer conformément aux coutumes du pays.

1. Asmoa eta planteamendua. 2. Europako Zuzenbide Komuna eta Accursioren Magna Glossa: 2.1. Zuzenbide Erromatarren berreskurapena Behe Erdi Aroan. 2.2. Boloniako Eskola. 2.3. Glosagileak eta Accursioren Glosa. 2.4. Zuzenbide Komuna eta Europako egitura politikoa. 2.5 Zuzenbide Komuna eta Unibertsitatea. 3. **Euskaldunak aipatzen dituen glosaren analisia.** 3.1. Glosaren transkripzioa eta itzulpena. 3.2. Jurisdikzioa: kontentziosoa eta borondatezkoa. 3.3. Accursioren iritzia. 4. **Glosa honek planteatzen dituen zenbait zalantza eta arazo.** 4.1. Euskaldunak eta Ingaltarrak erregea. 4.2. "Quaestioa": Jurisdikzioa eta delegazioa. Lapurdin sortutako egoera berezia. 5. **Konklusioak**

1. Asmoa eta planteamendua

Artikulu honen helburua oso argia da: Accursioren Glosan euskaldunak aipatzen dituen iruzkin baten berri ematea: "*Vascones dicunt se non teneri sub rege Angliae, nisi ipse sit in Vasconia*"¹. Helburu argia eta apala, oraingoz behintzat, aipamen horretatik beste zenbait ondorio ateratzeko arrazoirik ez dagoen bitartean. Lehendabiziko planteamendu bat egitea posible da, ordea: Erdi Aroan idatzitako "summa" juridiko garrantzitsuenetako batean euskaldunak aipatzen dira problema zehatz baten eredutzat hartuz: jurisdikzioa eta bere delegazioa.

Egokia da horrek izan dezakeen garrantzia neurtzea, Accursioren balioa Europako kultura juridikoan kontuan hartuz. Horrek Zuzenbide Komuna aztertzerako eramango gaitu eta bertan, batez ere, glosagileen lana burutzeko Accursiok *Corpus Iuris Civilis*-ari egindako Glosara².

Europar mundu juridikoan, XIII. mendean, definitibotzat hartu zen Zuzenbide Erromatarren

iruzkin orokorrean, baskoiak jartzen dira erregearen gobernadorearen agintea ukatzearen eredu bezala. Bestalde, glosa hau famatutzat eta eredutzat ("celebris est et magistra") hartzen du Cristobal Crespí de Valdaura-k, XVII. mendean, bera jurisdikzioaren gai hau aztertzen ari denean³.

Gure asmoa horren inguruan sor daitezkeen galderak eta posibilitateak planteatzea da, oraingoz erantzunak errazak izango ez badira ere. Lerro hauen bitartez planteatu nahi dena euskaldunen kokapen historiko europarraren posibilitatea da. Uste dut, zuzenbideari dagokionez, Accursioren glosa honek erakusten digula kultura juridiko europarrean agertzen diren fenomenoaren artean kokatzen direla euskaldunekin zerikusia dutenak. Horrek eskaintzen dituen norabide metodologikoei buruz gogoeta bat egitea lortu nahi nuke artikulu honen bitartez.

2. Europako Zuzenbide Komuna eta Accursioren Magna Glossa

2.1. Zuzenbide Erromatarren berreskurapena Behe Erdi Aroan

Erromako Inperioa erori ondoren, 476.ean, herri germaniarrak jabetu ziren mendebal Europako zenbait erreinuez. Horrela, Erromatar Zuzenbide klasikotik urrunduz, jadanik hain indartsua zen zuzenbidearen arruntaratzeko prozesua areagotu besterik ez da egingo. Goiz Erdi Aroan Zuzenbide Erromatarrekiko lotura gero eta ahulagoa izan zen, ia desagertu arte⁴.

Mendebaldeko tradizio juridiko erromatarra, 438. urteko Teodosioren Kodean oinarritzen zen⁵. Harrez gero zuzenbidearen sinplifikazioa, bulgarizaziotzat hartu izan dena, gelditu gabe areagotu zen. Ekialdeko Inperio erromatarrean, aldiz, zuzenbide tradizio kulturoak askoz hobeto

-
1. Testuak "vascones" eta "Vasconia" erabiltzen ditu. Kontuan izanik XIII. mendeko erdialdekoa dela, Akitaniako dukerriaren barnean koka daiteke. "Vasconia" Gaskoniaren parekoa izan daiteke edo, gero zehazkiago ikusiko dugun bezala, Accursiok aipatu nahi izango ditu alor honetan euskalduntzat har zitezkeenak. Gaskonia zentzu hertsian hartzen zen garai honetan, Baionatik Garona ibairaino (Arnaud D'OIHENART, *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum aquitanicae* ..., (Paris, 1656, facsimil, Vitoria-Gasteiz, 1992), eta Baionatik Pirineotaraino euskaldunak zeuden, hizkuntzagatik bereizi zitezkeenak. Gero zehaztuko ditugun arrazoiengatik (ikus 4.1. eta 4.2.) "vascones" hitzaren esangura hertsia eta euskaldunen aipamen zehatza aski segurua da. "Vasconia" bera ere Akitaniako alor euskalduna izango litzateke. Edozein kasutan, "Vasconia" Gaskoniaren parekoa izango balitz ere, euskaldunak egongo lirateke, berak bakarrik nahiz gaskoindarren artean. Itzulpena egiterakoan, garai hartako zirkunstantziak kontuan hartuz, "euskaldunak" erabiltzea egokia dirudi, gazteleraz "vascos" edo frantsesez "basques" izango litzatekeen bezala. Itzulpen seguruen emateagatik "baskoiak" esango bagenu, erromatar garaiko baskoiekin nahasteko arriskua legoke. Beraz, gentilizioari dagokionez, "euskaldunak" erabiliko dugu, eta lurraldeari dagokionez Baskonia, Akitaniako alor euskaldunari zegokion izena zelako.
 2. Erabiliko dugun argitalpena honako hau da, *Accursii Glossa in Digestum Vetus*, in, *Corpus Glossatorum Juris Civilis*, VII, Mario VIORAREN ardurapean, Turin, 1969, (Venezian, 1488an egindako argitalpenaren kopia anastatikoa).
 3. "*Haec conclusionem probat Glossa in l. 3 ff. de officio Praesidis, quae quia ad rem, de qua agimus, celebris est et magistra, ejus verba transcribimus* ...". Beraz, lauhun urte geroago erabiltzen da glosa hau erregeen jurisdikzioa, lurralde barnean egotearen edo ez egotearen arabera, aztertzeo, nahiz eta garai horretan baskoien aipamena gauza anekdotikoa baino ez izan. (CRESPI, Cristóbal, *Observationes Illustratae decisionibus Sacri Supremi Aragonum Consilii Sanctae Cruciatiae et Regiae Audientiae Valentiae*, Lyon, 1677, I, 185 orr., 17-18).
 4. Aquilino IGLESIA, *La creación del Derecho. Una historia del Derecho español. Lecciones.*, Bartzelona, 1989, II, 163 orr.
 5. W. KUNKEL, *Historia del Derecho Romano*, Bartzelona, 1982, 8. arg., 165 orr.

mantentzeko aukera izan zen, testuen ezagutza eta aztertze lanean etenik gabe jarraitu zutelako hango eskola juridikoetan. Horrek posible egin zuen Bizantziar Inperioko buru zen Justinianok egindako Zuzenbide Erromatar klasikoaren bilduma lana, 529. urtean burututakoa, bai legearen (*leges*) alorrean (*Codex-a*) bai jurisprudentzia (*iura*) alorrean (*Digestum-a* eta *Instituta*)⁶. Bilduma multzo hau *Corpus Iuris Civilis* bezala ezagutuko da.

Europako mendebaldean, Lehen Erdi Aroko garaietan, Zuzenbide Erromatarraren ezagutza hain ahuldu horren inguruan, zuzenbidea bera irakasteko modua ere asko aldatu zen. Zuzenbidea Erretorikaren alorrean kokatzen zen, *Trivium* eta *Quadrivium*-aren artean egiten zen banaketan. Zazpi *artes liberales* direlakoak osatzen zituztenen artean, *ars sermocinal*-tzat hartzen zen zuzenbidea, hau da, hizkuntzaren erabilerarekin zerikusia zeukatenen artean⁷. Zuzenbidea, eztabaidarako, argumentaziorako artearen barnean kokatzen zen. Baina edukari dagokionez Aintzinate erromatar klasikoan lortutakoa oso urrun eta erdi ahantzia agertzen zen.

Zuzenbide justiniandarraren arrasto handirik ez zegoen Europako mendebaldean, baina liburuak han zeuden. Justinianoren *Corpus Iuris Civilis*-aren aleak aurkitu zitezkeen, zenbait monasterio, katedral eta elizetan gelditu zirenak⁸.

2.2. Boloniako Eskola

Corpus Iuris Civilis-aren berragertze hori, neurri handi batean, Italian zehar haren eskuizkribuak berreskuratzean zetzan. Bolonian erabiliko dena, *littera vulgata* delakoa, X. edo XI. mendean egindako kopia bat izango litzateke, VI. edo VII. mendeko eskuizkribu batena, *littera fiorentina* delakoarena, hain zuzen ere⁹. Boloniako arte liberaletan maisu zen Irnerio izan zen hain garrantzitsutzat hartu zen testu luze hura serio eta sistematikoki aztertzen hasi zena. Denbora laburrean *Corpus Iuris Civilis* justiniandarraren berreskuratzea lortu zen. Bolonian bertan sortu zen berehalako Zuzenbide Erromatar klasikoaren pizkundea, eta bertako Unibertsitatea izan zen, XII. mendeko erdialdean hasita, Irnerio bera aintzindari izan zelarik, Zuzenbide Erromatar berreskuratua ezagutzera emateko tresnarik

onena. Bolonia, mendebal Europako zuzenbidea irakasteko nukleo oso garrantzitsua izatera pasa zen. Denbora laburrean Italiako iparraldean eta Frantziako hegoalde mediterranean beste unibertsitate anitz eraiki ziren. Toki guztietako, edo garai hartan esaten zen modura “nazio” guztietako ikasleak bertara joaten ziren, eta ikasketak amaitutakoan, beren sorterrietara itzultzean, ikasitako Zuzenbide Erromatarra aplikatzeko joera ekartzen zuten¹⁰. Horrela, Zuzenbide Erromatarraren berreskuratzearekin batera, ezinbesteko ondorioa izan zen hura hedatzea; zuzenbide erromatarra gero eta zabalduago azaltzen zen, bazter guztietan “hartzen” zen heinean. Beraz, Zuzenbide Erromatarraren errekonstruzioa gauzatu zen, alde batetik, eta bestetik, azpimarratzekoa izango da Europan zehar toki askotara iristean Zuzenbide Erromatarrak izango duen errezepzioa.

2.3. Glosagileak eta Accursioren Glosa

Testuak berreskuratzea ez zen aski, ordea, eta aztertze lan sakon eta luzea oraindik egiteko zegoen. Irneriok berak asko aurreratu bazuen ere, lehen fase batean liburu haiek irakurri, jorratu, eta ulertu egin behar ziren. Irneriok egindako lana oinarritzat hartuz, testu haiez jabetzeko egarriarekin ekingo zaio glosagintzari, *Corpus Iuris Civilis* bete-betean menperatzeko asmoz.

Alde batetik glosa gramatikala egingo da, testua hitzez hitz hartuz analisi linguistiko sakona lortu nahian. Testuen alboetan iruzkin “marginalak” egingo dira, hitz esanguratsuenak aztertuz iruzkin gisa. “Glosagile” lana egin zutenek, izen hori emango zaie, XII. menderditik XIII. menderdirarte *Corpus Iuris Civilis*-aren iruzkina modu edo “mos” hau erabiliz fase hori bete zutenei.

Ez litzateke zuzena izango, ordea, glosagileek analisi gramatikal hutsa egin zutenik esatea. Aldi berean testuen egitura orokorra ere ulertu nahi izan zuten, legeen arteko erlazioak eta kontraesanak azalduz (*continuationes titulum, solutiones contrariorum*), kasuak eta arazoak (*quaestiones*) planteatuz, ondorio orokorrak aterata eta esaldi laburretan adieraziz (*brocardum*). Beraz, ez zen izan lan analitiko hutsa glosagileek

6. Zehazkiago ikusteko, ikus daiteke Juan de CHURRUCA (Rosa MENTXAKAren kolaborazioarekin), *Introducción histórica al Derecho romano*, Bilbo, 4. argit., 1987, 234-239. Euskaraz, *Zuzenbide Erromatarraren sarrera historikoa*, (Gorka AURREren itzulpena), Bilbo, 1994, 257-264 orr.

7. Francesco CALASSO, *Medio Evo del Diritto. Le fonti.*, Milan, 1954, 272 orr.

8. F. CALASSO, *Medio Evo...*, atentzio berezia ematen baitio Italia bizantziarrean izandako egoera juridikoari (ikus III. eta IV. kapituluak). Zuzenbide Erromatarraren iraupena Italian Lehen Erdi Aroan oso eztabadaitua izan da, FITTING iraupenaren iritzi horren alde eta CONRAT aurka azaldu zirelarik, autore ospetsuenak aipatzeagatik. (ikus ibíd, XI. kap., “Scuola e scienza del diritto”).

9. A. IGLESIA, *La creación...*, II, 181 orr.

10. Enrico BESTA - Pasquale DEL GIUDICE, *Storia del Diritto italiano*, Frankfurt - Firenze, 1969, Milanen 1923an egindakoaren berrargitalpena, vol. I, parte seconda, 263 orr.

egin zutena. Sintesiari ere begiratu zioten, *summae* delakoan bitartez, eta Zuzenbide Erromatarraren ardatzak eta beraren zentzu eta arrazoi orokorrak aurkitzeko urrats handia eman zuten¹¹.

Pixkanaka, gero eta gehiago, glosagileen lanak itxura kolektibo bat hartu zuen, glosak errepikatu egiten baitziren, eta nolabaiteko antza sortu zen iruzkinen artean, batez ere glosagile batzuen eragina hedatu zenean. Rogerio, Alberico, Azzo eta Hugolinoren glosa tipoak azpimarratu daitezke¹². 1210. urtearen inguruan egingo du Azzo-k bere *Summa Codicis*, Zuzenbide Erromatarraren finkapen zientifiko oinarritzkoa lortuz.

Oraindik ezin zitekeen esan, ordea, glosaren fasea burutua zegoenik. Beharrezkoa zen behin betikoa izan zitekeen glosa egitea, eta Accursio (Florentzia 1189- Bolonia 1260) izan zen, aipaturiko Azzo-ren diszipulua, *Magna Glossa* edo *Glossa Ordinaria*-tzat hartuko denaren autorea¹³. Lan astuna, bikaina eta luzea: ehun mila glosa inguru hartzen ditu. 1220aren inguruan hasi eta 1250 inguruan burutu bazen ere bere lana, agian gero ere berridazketak egingo zituen autoreak¹⁴.

Orditik aurrera Accursioren autoritatea

guztiz onartuko da, eta Accursioren idazlan hau izango da hurrengo ehun urteko fase berriaren ("mos italicus" delakoaren) oinarria¹⁵.

Esan ohi da glosagileek ez zutela izan ikuspegi kritikorik beren lana egiterakoan. Baina hori gehiegi eskatzea izango litzateke, nahiko lan baitzuten testuak jorratzearekin. Hala eta guztiz ere, beren "glosak" balio propioa izango dute, beharrezkoa zena, bestalde, aplikagarritasun praktikoa lortzeko.

Corpus Iuris-a egokitu egin behar zen, baina horrek ekarri zuen testuen iruzkinak jatorrizko testuak bezain baliotsuak izatea. Ikuspegi horretatik Accursiok egindako *Glossa Ordinaria* horrek garrantzi berezia izango du, eta hurrengo faserako abiapuntutzat hartuko da¹⁶. Accursioren glosa "glosatu"ko da, haren autoritatea oinarritzat hartuz. Glosa baztertu edo gaudituz nahi izatea arrokeriatzat har zitekeen¹⁷.

2.4. Zuzenbide Komuna eta Europako egitura politikoa

Accursioren garaian (1260. urtearen inguruan hil zen), aski heldua zegoen Zuzenbide Erromatarra, eta esan daiteke Europako Zuzenbide Komuntzat hartzeko moduan hedatua zegoela. *Ius Commune* delakoaren ideia betetzeko Elizaren zuzenbidea ezin zitekeen baztertu.



3. irudia

11. *Ibid.*, 810-811 orr.

12. Gero DOLEZALEK, "Observaciones sobre el desarrollo del Derecho Común hasta la época de Alfonso X el Sabio", in *España y Europa, un pasado jurídico común*, Murcia, 1986, 27-44, 42 orr.

13. Accursioren bizitzari eta Glosari buruzko azterketa sakona, G. ASTUTI, "La glossa accursiana", in *Atti del Convegno internazionale di studi accursiani*, II, Milan, 1968, pp. 289-379. ASTUTIK berrikuspen kritiko bat egiten du. Biografiaren laburpen gisa, ordea, SAVIGNYk ematen dituen datuak aski izan daitezke. 1182 inguruan jaio zen (Astutik dio 1184-1185) Florentzia inguruko herri batean, florentziartzat hartzen bada ere gure autorea. Azzo izan zen bere maisua. Bolonian irakasle izandakoa urte askotan, 1221.ean hasita. Baita, 1252.etik, Boloniako "podestá"-ren aholkularia ere. Bi aldiz ezkondu zen, eta guztira lau seme alaba izan zituen, azkena 1254ean jaioa. Bolonian hil zen 1260 urtean. (F. Karl Von SAVIGNY, *Storia del diritto romano nel medio evo*, II, Erroma, 1972, argitalpen anastatikoa, Turinen 1854-1857 an egindakoarena, 369-376 orr.)

14. Accursioren glosa sakon aztertzen du Guido ASTUTIK, "La glossa accursiana" delako artikulua luzean, in *Atti del Convegno internazionale di studi accursiani*, Milan, 1968, 289-379. Glosen kopurua, SECKEL, KANTOROWICZ eta GENZMERrek zenbatu dituztenak, 354 orrialdean. Guztira, 96.940 glosa izango ziren.

15. Zuzenbide Komuna aztertu duten autore guztiak ados daude iritzi honetan. Azpimarratuko dugu hemen, Luigi LOMBARDI, *Saggio sul diritto giurisprudenziale*, Milan, 1975, 112. Autore honek parekatzen du Accursiok egindako hautapen lana Digestoak egin zuenarekin eta honen "efetto Digesto": hautapen lan beharrezkoa, material mordo izugarria dagoenean norbaitek egin behar duena, erabilgarritasuna lortzeko. Hori bera egingo zuten Paulok eta Ulpianok jurisprudentzia klasikoari dagokionez, Digestoak ere gehiago, eta WINDSCHEIDek produkzio pandektistikoari dagokionez.

16. Orain arte aipatu ditugun autore guztiengan iritzi hau aurki genezake. Esanguratsua izan daiteke Vincenzo PIANO MORTARIK ematen duena, *Dogmatica e interpretazione. I giuristi medievali*, Napoli, 1973, 97 orrialdean, Accursioren "Glossa ordinaria" edo "Magna Glossa hau", Erdi Aroko kultura juridikoaren "punto di arrivo"-tzat hartzen duenean.

17. "Credis tu quod glossa non ita viderit illum textum sicut tu et non bene intellexerit sicut tu?" (L. LOMBARDI, *Saggio ...*, 113).

Zuzenbide Kanonikoa aztertzen zutenek oso ongi ezagutzen zuten Zuzenbide Erromatarra, eta zibilistek ere Zuzenbide Kanonikoa gero eta hobeto ezagutzeko premia izan zuten.

Ezin da ulertu garai hartako historia eta, are gutxiago, zuzenbidea, Elizaren tokia eta funtzioa, eta botere politikoarekin zituen harremanak kontuan hartu gabe. Ezin gaitzekite hemen gehiegi luza, baina Zuzenbide Komunaren ideia oinarria zuzenbide batu eta bakarrean datza: UNUM IMPERIUM, UNUM IUS. Sakro Inperio Germaniarreko Enperadorea eta Aita Santua dira *Respublica Christiana* europar horren buruak, beren arteko erlazio orekatua lortu nahiean, sarritan, eztabaida eta gatazka gogorak izango badituzte ere. Lehen unetik hasita jarri ziren Boloniako jurista hauek Enperadorearen zerbitzuan, honen botere bateratzailearen alde Zuzenbide Erromatarrak eman zitzaizkeen teoriak aztertzen eta sendotzen. Eliza ez zen geldirik egongo eta esan daiteke, oro har, Inperioaren aurkako jarrera hartzen zuenean, beste erresumen toki propio baten alde jokatu zuela. Horrela, Inperio osoko arlo uniformearen barnean, *exceptio ab Imperii* edo Inperiotik at egoteko eskubidearen teoria azalduko da, eta erresumek, hala nola Frantzia, Gaztela edo Aragoako koroak, beren burujabetasuna aldarrikatuko dute¹⁸. Beraz, Europan bi jarrera horiek ikus daitezke: bateratzailea eta erresumen norabide propioa jarraitzearen aldekoa, hau da, Inperioaren batasuna indartzearen aldekoa eta, Inperiotik kanpo, beren erresumen “enperadore” izan nahi zutenen jarrera, “*rex imperator in regno suo*” ideia ildotik.

2.5. Zuzenbide Komuna eta Unibertsitatea

Zuzenbidearen ikuspegi hutsetik, ordea, “*Ius Commune*”-ren ideia gero eta garbiago azalduko da. Zuzenbide Erromatar eta Kanonikoko jatorrizko testuek beren “glosa” definitiboak behar izan zituzten, testuen finkapenak eskatzen zuelako. Accursiok *Corpus Iuris Civilis*-arena egin zuen moduan, Zuzenbide Kanonikoaren alorrean Grazianoaren *Decretum*-arena ere egingo da eta Gregorio IX.aren *Decretales*-ena ere bai¹⁹.

Hauek izan ziren glosagileen zereginak, neurri handi batean Unibertsitatean gauzatuak, Bolonia eta Italiako iparraldeko ikastetxeetan

bereziki. Unibertsitatearen ekarpena bikaina izan zen, eta irakasleen, ikasleen eta liburuen eta beste jakintza tresna ezberdinen bitartez bultzatu zen.

Glosagileek egindako iruzkinek lege balioa izateko aukera handiak zituzten, Zuzenbide Komun hori toki bakoitzeko zuzenbide berezien osagarri bihurtzen zen heinean. Jurisprudenteen lana izanik, eta iturri multzo handi horren elementu garrantzitsua lege-gizonek sortutakoan oinarritzen zenez, esan ohi da zuzenbide jurisprudentzial baten aurrean gaudela, hau da, juristek egina delako, “*Juristenrecht*” edo, zehatzago esanda Koschaker-en hitzekin, “*Professorenrecht*” baten aurrean²⁰.

Zuzenbide europarra, gainera, aipaturiko irakasle-ikasle eta liburuen zirkulazioari esker toki guztietara hedatu zen. Eta toki horietan zegokion Errezeptzioa eman zitzaion, letra maiuskulaz idatzi daitekeena eta idazten dena: Errezeptzioa, zuzenbide bloke oso baten antonomasiatzko Harrera. Fenomeno juridiko hutsaren mugak gaintuz, Errezeptzioak, besterik esaten ez bada Zuzenbide Erromatar-Kanonikoari egin zitzaionak, egitate kultural sakon baten ezaugarriak hartu zituen.

Beraz, XIII. mendean Accursioren Glosak nagusitasun handia hartu zuen. Zuzenbide jurisprudentzial horren kultura giroan, lege iturriak oraindik nahiko urriak ziren garai haietan, berezko autoritate eta prestigioa zeukaten testuak behar ziren. Accursioren Glosak maila hori lortu zuen. Erabilerak eta hedapenak berak zuzenbide iturri balioarekin jantzi zuen toki askotan. Iturri “ofizialaren” kontzeptua ezin daiteke esan XIV. mendea baino lehen finkatua dagoenik. Epaitegietan zer aplikatzen zen ikusi beharko da, azken batean, zuzenbidetzat zer hartu genezakeen jakiteko. Eta Zuzenbide Komuna izango da Europan, oro har, ordezkotako zuzenbide iturria XIII. mendean. Zuzenbide Erromatarrari dagokionez, Accursioren Glosa izan zen funtzio hori betetzeko erruz erabili zena.

Hau guztia esanda, Accursioren Glosak euskaldunak aipatzeak duen balioaren jabe izateko oinarri garbiak dauzkagu. Gainera, ez zen izan Accursio bakarrik. Bere garaikidea zen Odofredo-k ere aipatzen ditu euskaldunak, toki berean eta gai berari buruz, oso modu antzekoan, ikusiko dugun bezala. Sar gaitezen orain glosa bera aztertzeraz.

18. Aita Santuaren eta Inperioaren arteko erlazioaren sintesia: A. PEREZ MARTÍN, “La ‘Respublica Christiana’ medieval: Pontificado, Imperio y reinos”, in, *El Estado español en su dimensión histórica*, Bartzelona, 1981, 61-128 orr.

19. Joannes Teutoniarrak, *Decretum*-arena (1215-1217); Baernardo da Parma da Botonek, *Decretales*-ena (1245-1263).

20. Paul KOSCHAKER, *Europa und das Römische Recht*, Munich - Berlin, 1966, 165; 211 orr.

3. Euskaldunak aipatzen dituen glosaren analisia

3.1. Glosaren transkripzioa eta itzulpena²¹

“Privatus est”: Hauek dira Accursiok euskaldunak aipatzerakoan iruzkintzen dituen hitzak. Digestoaren lehen liburuko, 18. tituluko hirugarren legean agertzen dira.

Digestoa, erromatar jurista klasikoen idazlanen hautapen bat izanik, hemen Pauloren produkzioetik, hark Sabinori egindako iruzkinetatik hartutako zatia dugu.

Iruzkintzeko dagoen zatiak honela dio, Accursiok berak emandako idazkera hartuz:

“Praeses provincie in suae provincie homines tantum imperium habet, et hoc dum in provincia est; nam si excesserit, *privatus est*”.

Glosaren testua.

Hona hemen prestatu dugun glosa horren transkripzioa,

“ Preses privatus est quantum ad contentiosam iurisdictionem exercendam non quantum ad voluntariam, ut s(upra) tit(ulus) II l(ex) I et l(ex) II (D.1.2.1-2). Item hoc, si volebat aliquid exequi extra provinciam, puta demandare sententiam executioni(s) de re existente extra provinciam, vel intra, per se sed per delegatum sic potest ut supra de officio prefecti urbi ut l(ege) fin(ale) (D.1.12.3)²². quod non potest plusquam privatus, ut i(nfra) de bo(nis) auc(toritate) iu(dicis) poss(idendis) (D.42.5), cum unus pe(nultimo). Non autem dico si exierit, ut ob hoc videatur in provincia amisisse imperium, ut dicunt vascones qui dicunt se non teneri sub rege anglie nisi ipse sit in vasconia. Alias nolunt ei servire, sed dicunt eum privatum et non esse eorum regem. Sed male intellegunt, nam non est privatus sicut nec sacerdos definitur cui interdicitur officium. Hoc tamen est, quod non habet exercitium iurisdictionis extra provinciam suam, quia in dicendis sententiis suis more suorum maiorum debet servare ut s(upra) de iusti(tia) et iu(re) l(ege) pe(nultime) (D.1.1.11). Potest tamen et debet delegare etiam extra ut

delegatus intra provinciam cognoscat ut dixi s(upra) de officio prae(fecti urbis) ut l(ege) f(inale) (D.1.12.3)²³.

Itzulpena honela moldatu dugu:

Probintziako Gobernadorea pertsona pribatua da (probintziatik kanpo dagoenean) jurisdikzio kontentziosoari dagokionez, ez borondatezkoari dagokionez, goian 2. tituluko 1. et 2. legeetan esan bezala (D.1.2.1-2). Beraz, nahi izango balu zerbait egin probintziatik kanpo, hala nola epai baten egikaritzea eskatu probintziatik kanpo edo haren barnean dagoen gauza bati buruz, egin lezake, berak edo, edozein kasutan²⁴, delegatu batek, goian “de officio praefecti urbi” azken legean ikusi bezala (D.1.12.3), pertsona pribatu gisa egin ezin dezakeena, beheagoko “de bonis auctoritate iudicis possidendis” azkenurren paragrafoak dion bezala (D.42.5). Beraz, ez dut esaten probintziatik irtetzeak bere “imperium”a galtzea dakarkionik gobernadoreari, euskaldunek dioten bezala, Ingalaterrako erregearen mendean ez daudela esaten baitute, erregea Baskonian bertan ez badago. Honela denean ez dute nahi hura zerbitzatu, pertsona pribatutzat hartzen baitute, esanez ez dela beren errege. Baina gaizki ulertu dute, ez baita pertsona pribatua, apaiza, nahiz eta bere kargutik kendu, ez den bezala. Hori bai, honek esan nahi du probintziatik kanpo jurisdikziorik ez daukala, epaiak probintziakoen eta beren arbasoen ohituren arabera eman behar dituelako, goian “de iustitia et iure” azkenurreneko legeak dion bezala (D.1.1.12). Beraz, kanpoan dagoenean delega dezake eta delegatu egin behar du, delegatuak probintzia barnean epaiak eman ahal ditzan, goian “de officio praefecti urbis” azken legearen inguruan esan dudana bezala (D.1.12.3)²⁵.

Accursioren garaikidea zen Odofredok “privatus est” honela iruzkindu zuen:

“... et ita ex hac. l. colligunt ar. vascones, quod dum rex anglie est in vasconia, habet iurisdictionem in eos, sed dum rex non est in vasconia iurisdictionem nec exercitium iurisdictionis habet, imo eum privatum dicunt et eum non esse suorum regem. Sed ipsi male dicunt, nam dum rex anglie est in vasconia habet iurisdictionem per se; si autem exeat ipse habet exercitium iurisdictionis non per se, quia in

21. Erabiliko dugun argitalpeneko 35 eta 36 orrialdeetan dago glosa hau (*Accursii Glossa in Digestum Vetus*, in, *Corpus Glossatorum Juris Civilis*, VII, Mario VIORaren ardurapean, Turin, 1969, Venezian, 1488an egindako argitalpenaren kopia anastatikoa).

22. “Praefectus urbi, quam terminos urbis exierit potestatem non habet; extra urbem potest iubere iudicare”.

23. Adriana CAMPITELLI Erromako “Tor Vergata” unibertsitateko irakasleak, emandako aholku eta laguntasunez egin ahal izan dut transkripzio hau; eskerrak hemendik berari.

24. Testuak “per se sed per delegatum” dio. Dagoen bezala onartuz, “sed” baiezko esaldi baten ondoren dagoenez, esandakoa ziurtatzeko beste modu bat adierazi nahi luke. Baliteke, ordea, testuan errakuntza bat egotea, “non” hitza falta zaiolarik. Orduan “non per se sed per delegatum” izango litzateke, eta itzulpena “ez berak baizik delegatu batek”.

25. Testu hau itzultzerakoan eta artikuluaaren estilo orrazketa orokorrean, Fernando Mendizabalaren laguntza izan dut. Berarengandik oraingo honetan eta azken urte hauetan zehar jasotako laguntza eta ikasitakoa eskertu nahi dizkiot hemen.

dicendis sententiis debet servare mores
maiorum²⁶.

3.2. Jurisdikzioa: kontentziosoa eta borondatezkoa

Digestoaren lehendabiziko liburua, zuzenbiderako sarrera orokor batekin hasten da, “de iustitia et iure” delakoarekin, eta segidan, besteak beste, Erromatar Inperioko goi mailako magistraturak aztertzen ditu. Horretarako hartzen duen irizpidea jurisdikzioa da, hau da, zuzenbidea “esateko” edo zehazteko gaitasuna. Erromatar Inperioren garaian jurisdikzioaren kontzeptua pisuduna bazen, bere garrantzia areagotu egingo da Erdi Aroan zehar²⁷. Azken batean jurisdikzioaren ondorio naturala epaia zen. Epaia bitartez “esaten” zen zuzenbidea, kasu jakin bati aplikatzen zitzaionean. Horretarako epaileak behar bezalako eskuz jantzita agertu behar zuen. Eskuduntza horien mugak zehazten dira Digestoaren lehen titulu hauetan²⁸.

Inperioren egitura politiko eta geografikoan, justiziaren administrazioak bere funtzionamendu

sistematu eta iherarkikoa gauzatu ahal izan zedin, barruti edo alor espazialak bereizi behar ziren. Justiziaren hurbiltasun fisiko orekatuak barruti edo distrito horien arteko moldatze egokia eskatzen zuen. Distrito administratibo edo judicial jakin bateko magistratuak bertan egon behar zuen epaiak emateko, hau da, jurisdikzio kontentziosoa egikaritzeko. Horren zergatia hiritarren justiziarekiko hurbiltasunean datza. Ezin daiteke behartu subditoa oso urrutira joatera auzi batean alderdi izatea gertatzen zaionean. Auzia, bi

**ri dicat. poterit de plano similiter
libertum nō obsequētem emēda-
re: aut verbis: aut fultum castigati-
one. Observare itaq; eum o;.
ut sit ordo^a aliq; postulatum .f. ut
oium^b desideria audiātur: ne forte
dum bono postulatum dat^c vel i-
probitati ceditur: mediocres desi-
deria sua nō pferāt: q; aut oio non
adbibuerūt^d aduocatos aut minus**

Accursioren glosaren zati bat, 1488ko argitalpen batetik hartua.

alderdiek batabestearen aurka epailearen aurrean planteatzen duten arazoa, epaileak burutu behar du sententzia emanaz eta alderdien arteko eztabaida edo *contentio* hori bideratuz. Jurisdikzio kontentziosoa, inork “nahi” izan ez duen arazo bat planteatzen denez, auzian alderdi direnek bertako eta *bertan dagoen* magistratu edo epailearen sententzia eska dezakete. Horren ondorioz, magistratu hori probintziatik kanpo badago, ezin dezake jurisdikzio kontentziosoa egikaritu. Arrazoi hauetan datza Erdi Aroan hain indar handia izango duen “epaile naturala”-ren ideia, eta beraren lehentasuna, beste guztien aurretik, zegokion distrito judizialean²⁹.

Zergatik, orduan, jurisdikzio borondatezkoari alderantzizko aukera eman? Jurisdikzio borondatezkoan hiritarrak bere kabuz eta gogoz eskatzen diolako magistratuari ebazpena, inoren aurka joan gabe, *contentio*-rik planteatu gabe³⁰. Magistratuak jurisdikzio borondatezkoa *in volentes* gauzatzen du, kontentziosoa berriz *in invitos*, gogoz kontra aritu behar izan dutenei begira, eta beren artean *contententes* bihurtu direnei.

Bere aldeko zerbait eta inor kaltetu gabe eskatu nahi duenari ez zaio oztoporik jarri behar. Bere herrialdetik kanpora atera behar badu, Enperadorearen Kantzileriaraino joan nahi badu, bere esku dago, bere kontura, noski. Jurisdikzio kontentziosoa, aldiz, epailearen eskua modu zorrotzean neurtu behar da, eta dagokion barruti geografikoa ere bai.

Jurisdikzio kategoria hauek oinarritzkoak izan baziren Behe Inperioko garaian, Erdi Aroan

26. Domini Odofredi in iure absolutissimi matura, diligentissimeque repetita interpretatio, in undecim primos pandectarum libros, iuris candidatis, propter exemplorum (quae rudiores movent) mirificam copiam, usui maximo futura. Lyon, 1550, 32 orr. (Erabili dut argitalpen anastatikoak, *Lectura super Digesto Veteri*, Bolonia, 1969).

27. Jesús VALLEJO, *Ruda equidad, Ley consumada. Concepción de la potestad normativa (1250-1350)*, Centro de Estudios Constitucionales, Madrid, 1992, 47 orr.

28. X. tit., *De officio consulis*. Hurrengo tituluetan “De officio” hitzei jarraitzen dio: XI.ean *Praefecti pretorio*; XII.ean *Praefecti urbi*; XIII.ean *Quaestoris*; XIV.ean *Praetorum*; XV.ean *Praefecti vigilum*; XVI.ean *Proconsulis et legati*; XVII.ean *Praefecti Augustalis*.

29. Cristóbal CRESPI, *Observationes illustratae decisionibus Sacri Supremi Aragonum Consilii Sanctae Cruciatuae et Regiae Audientiae Valentiae*, Lyon, 1677. Autore honek 15. “observatio”-a gai honi buruz.

30. Borondatezko jurisdikzio tipikoan kokatzen ziren tutoretza, kuratela, “venia aetatis” etab. Ikus, FERNANDEZ DE BUJAN, A., *Jurisdicción voluntaria en Derecho romano*, Madrid. 1986.

areagotu egingo da beren garrantzia. Kontentziosoan justiziaren administrazioa gauzatzen zen. Baina borondatezkoaren bitartez, molde guztietako eskariei erantzuna emanez, gobernu alorrean koka daitezkeen zenbait arazo bideratzen ziren³¹. Horregatik glosagileek indartu egingo dute kontzeptu hau. Adostasun handiarekin onartua dago Sassoferatoko Bartolo-k, XIV. mendearen erdialdean, jurisdikzioaren azterketa teorikoa burutu zuela, eta eskaini zuela gero klasiko bihurtu zen definizioa: *iurisdiclio est potestas de iure publico introducta cum necessitate ius dicendi, et aequitatis tanquam a persona publica statuendae*³².

3.3. Accursioren iritzia

Jurisdikzioari buruzko premisa hauek kontuan hartzea beharrezkoa da “privatus est” esaldia ulertzeko. Gobernadorea, probintziatik kanpo badago, beste edozein pertsona partikular bezala da, eta ezin du epaile funtzioa bete, auziei dagokienez.

Accursiok dionez, euskaldunek (“vascones”) ez dute onartu nahi Ingalaterrako erregearen agintea, Baskonian bertan ez dagoelako. Baskoniatik kanpo pertsona partikular bat besterik ez da eta ezin da izan haien errege.

Accursioren iritzia, argia eta azkarra: “male intellegunt”. Erregea bera ez bada, berarengandik jurisdikzioa jasotako ordezkari batek epaiak eman ditzake probintzia barnean.

Jurisdikzio kontentzioso eta borondatezkoaren arteko bereizkuntza onartuz, Accursiok aitortzen du probintziatik kanpo dagoenean magistratuak ez daukala eskurik “in dicendis sententiis”, eta horren arrazoia oso garbi agertzen du: “quia in dicendis sententiis suis more suorum maiorum debet servare”. Beraz, garbi agertzen du Accursiok, magistratuak, alor prozesalean arituko bada, hau da, justizia bidean, eskuduna izan behar duela; bertan egon eta bertako zuzenbide bereziari lehentasuna eman behar diola. Esan gabe doa zuzenbide hori ezagutu egin behar duela.

4. Glosa honek planteatzen dituen zenbait zalantza eta arazo

4.1. Euskaldunak eta Ingalaterrako erregea

Accursiok erabiltzen duen esaldian oso modu orokorrean aipatzen dira bai euskaldunak (“vascones”), bai Ingalaterrako erregea. Ez da zehazten ez nongo euskaldunak diren, noiz esaten duten hori, ezta ere alegazio horiek non aurki daitezkeen. Ingalaterrako erregea ere modu abstraktoan aipatzen da.

Hori gutxi balitz, garbi ez dagoen beste gauza bat da Accursioren garaikoak diren ala ez. Egia da aditzaren presentea darabilela (“vascones dicunt”). Hortik garaikidetasuna ondorioztatzerik balego, denbora esparru zabal batean kokatuko ginatke. Accursio 1220. urte inguruan hasi omen zen glosak egiten. Agian 1240 inguruan nahiko burutua zuen bere lana, baina nahiko segurutzat ematen da ia bizitza guztian jarraitu zuela glosak berregiten, eta heriotza urtea 1260 inguruan kokatzen da. Beraz, Accursioren euskaldun garaikide hauek 1220-1250 artekoak izan daitezke. Hori, esan bezala, Accursiok iraganean gertatutako zerbaiti buruz ari dela alde batera utziz. Baina hori ere posible litzateke.

Bestalde ez dago garbi “dicunt” horren esanhaia. Noizbait esandakoa, aldi batean, edo batzutan esaten dutena, edo behin eta berriro esaten dutena.

Euskaldun horiek nor diren mugatzeko irizpide bakarra, Ingalaterrako erregetzarekin duten harremanean datza. Beraz, garbi dago Iparraldeko euskaldunak direla. 1152. urtean Akitaniako dukerriko dukesa zen Alienor, Frantziako Luis VII. arekin ezkondua, dibortziatu egin zen eta Endrike Anjou-ko kontearekin ezkondu zen. Handik bi urtera Ingalaterrako errege izatera pasa zen, oinordetza gatazka handiak gaudituz ondoren. Endrike II.ak Plantagenet dinastia ekarriko du Ingalaterrako tronura bere Frantziako jaraunspen dinastikoarekin batera. Rikardo, Lehoi Bihotzak, Akitaniako oinordetza eskuratuko du bere amarengandik 1169ean, eta handik aurrera Ingalaterrako erregeak Akitaniako duke ere izango dira. Hortik aurrera gatazkak izango dira:

31. Ezin naitekeenez hemen honetan luzatu, nire iritziak ikus daitezke: Jon ARRIETA, “Justicia, gobierno y legalidad en la Corona de Aragón del siglo XVII”, in *Estudis*, 22 (1996), Valencia, 217-248 orr.

32. Jesús VALLEJO, *Ruda equidad, Ley consumada. Concepción dela potestad normativa (1250-1350)*, Centro de Estudios Constitucionales, Madrid, 1992, 45 orr.

ARRIETA, J. Vascones eta Vasconia Accursioren Magna Glossa delakoan. *Eleria*. 1, 1997, 18-27

1174an; 1177an, Gaskonia osokoa kasu honetan³³. Noblezia izan zen ingelesen aurkako jarrera gogorrena erakutsi zuena. Errebolta gogor eta luzeena 1251 eta 1275 bitartekoa izan zen³⁴. Baionako hiria erregearen alde jartzen zen gatazka hauetan, bertako nobleziaren aurka zeudenekin batera.

4.2. “Quaestioa”: Jurisdikzioa eta delegazioa. Lapurdin sortutako egoera berezia

Ez dakigu Accursiok egiten duen aipamenak gatazka hauekin zerikurisirik duen ala ez. Testuak berak ez du horrelakorik agertarazten. Gehienbat gatazka juridikoa aurkezten digu florentziarrak. Nire iritzian jurisdikzio edo eskuduntza arazo bat aurkeztu nahi du glosagile honek. Noren artean? Zergatik?

Argumentuak argiago ikusteko, alde batetik euskaldunena garbi adierazten da: erregearen presentzia beharrezkotzat jotzen da haren agente politikoa onartzeko. Accursioren iritzia ere ezin garbiago: erregeak delegatu egin dezake bere jurisdikzioa ordezkari batengan. Beraz, ez da

beharrezkoa bere presentzia zuzenekoa. Horrela, erregearekiko arazoa baino gehiago, esango nuke erregearen ordezkariari dagokiola hemen planteatzen den eztabaida juridiko hau.

Accursiok Digestoaren ildotik eraman nahi du *quaestio*-a. Probintzia batean, hau da, distrito jurisdikzional sendo eta zehatz batean, hori baita probintzia hitzaren zentzua, justiziaren administrazioa molde prozesal eta organiko egokien bitartez gauzatu behar da. Erregeak, ezin denez toki guztietan batera egon, bere delegatu eskudunak ipini ditzake. Hauek, hori bai, baldintza batzuk kunplitu behar dituzte, betere jurisdikzio kontentziosoa eta borondatezkoa bereiziz.

Jurisdikzioaren eta delegazioaren teoriak ekarri nahi ditu Accursiok, azken batean, bere iruzkin honetara³⁵. Eta “kasua”, hau da, adibidea, Ingalaterrako erregeari dagokio, bere domeinupean zegoen “probintzia” bateko egoera hartuz. Zergatik? Agian erregearen ordezkariaren tokia eta ahalmenak behar bezala definitu gabe zeudelako une hartan.

Une latza eta erabakiorra, bertako agintariak, ordurarte goi mailan zeudenek, beren tokia galtzeko arriskuan ikusiko dutelako XI.



4. irudia

33. Eugene GOYHENECHÉ, “Instituciones administrativas del País Vasco-Francés”, in *Anuario de Historia del Derecho español*, XLIII (1973), 207-262, 216 orr.; autore berak, *Historia de Iparralde*, Donostia, 1985, 32 orr.; Ikus Idoia ESTORNES ZUBIZARRETAren ikuspegia, periodifikazioari dagokionez bereziki, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, vol. III, Donostia, 1977, (“Baja Navarra”), gai honi buruz, 566 orr.
34. E. GOYHENECHÉ, *Historia de Iparralde*, 32; Oso ongi aztertzen du gaia Idoia ESTORNÉS ZUBIZARRETAk, in *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, vol. XXII, Donostia, 1986, (“Laburdi”), arazo hau 298 orr.
35. Ikus José María GARCIA MARIN, *El Oficio público en Castilla durante la Baja Edad Media*, Sevilla, 1974, delgazioaren teoria eta arazoak argi aztertzen baititu (38-45 orr.) Jurisdikzio arruntaren eta delegatuaren arteko diferentziaz, ikus A.M. HESAPANHA, *La gracia del derecho*, Madril, 1993, 76 orr.

mendeko azken 30 urteak nahasiak izan ziren, euskal lurraldeen adskripzio politikoak aldakorrek ziren oraindik eta. Plantagenet-tarrak izango dira beren agintea inposatu nahi izango dutenak. Lapurdin lortuko dute, baina ez Baxenabarrean, non Nafarroako erregea zen Antso Jakintsuaren ordezkariak lortuko baitu Donibane Garaziko kontrola, kapitain-alkaide tituluarekin. Horrela, XIII. mendeari begira, Lapurdiko errege ingelesen "bailea" bere karguan finkatu gabe zegoen oraindik.

Baliteke une hori izatea Accursiok bizi edo ezagutu zuena. Nire iritzian hau da posibilitate seguruen egitate historikoak eta arazo juridikoak hartuz. Eugene Goienetxek garbi azaltzen digu Rikardo Lehoi Bihotzak, 1190.ean Baionako egoera eta Baionatik kanpokoa bereizi zituenetik, Lapurdiko "baiulus" bat izendatu nahi izan zuela, baina ezin izan zuela hori berehala lortu. Ordezkari hori, erregearen izenean goi mailako justizia egikarituko duena, 1244ean izendatuko zen, Endrike III.aren garaian³⁶.

5. Konklusioak

Glosagileen eta Unibertsitate maisuen metodoan, arazo juridiko orokorrak (*quaestiones*) planteatzea izaten zen helburua. Horretarako *casus* errealak ekartzea oso egokia izaten zen. Baskoiak eta Ingalaterrako erregeen artean sortutako hau, benetan da interesgarria jurisdikzioaren eta delegazioaren inguruko "quaestio" bat aztertzeko. Baliteke Accursiok intentzio horrekin ekartzea bere glosen "apparatus"-era. Are gehiago, pentsa genezake kasu ezaguna zelako egingo zuela hori, irakurleek ere uler zezakeetelako.

Pentsa daiteke, baita ere, agian, euskaldunen alegazio hauek doktrina juridiko hauetan oinarrituta egon zirela. Ezin da baztertu, nik dakidanez horrela ez bada ere, alegazio hauek modu idatzian eginak izatea. Ez dakigu Accursiok dionak ("vascones dicunt") entzundako zerbait edo berak irakurritako zerbait duen oinarritzat. Italian arazo honen oihartzunaren parean, baliteke kasua sortutako tokian idatzizko forma izatea. Iritsi ote zen agiriren bat Ingalaterrako erregeen Kantzileriaraino?

Edozein kasutan, Accursiok egitate hau eredutzat hartzen du, eta Odofredok ere bai. Glosagileen gailurrean egon ziren jurista hauek,

"autoritate" hain handiarekin jantziak, izan ziren kasu hori jarri zutenak. Eta hortik aurrera mendeetan zehar Accursioren Glosa maneiatu zutenek irakurri ahal izango dute euskaldunak aipatzen dituen iruzkin hau. Ikusi dugun bezala, XVII.mendeko jurista famadun batek (Crespí Espainian eta Europa osoan ezaguna baitzen bere garaian eta hurrengo mendean ere), jurisdikzioaren arazoa aztertzerakoan gainera, garbi agertzen du Accursioren glosa hau funtzeskoa dela eta oso ezaguna ("celebris et magistra").

Eman dezagun egitate historikoak bestelakoak izan zirela, ikusitakoaren ondoren horrela izateko posibilitate askorik ez badago ere, eta kasu hau Accursiok edo Odofredok erdi asmatutakoa dela. Hori bera aski izango litzateke euskaldunen mundu juridiko eta politikoa Accursioren eta, ondorioz, europar Zuzenbide Komunaren barnean kokatu ahal izateko.

36. E. GOYHENECHÉ, *Le Pays Basque. Soule, Labourd, Basse-Navarre*, Pau, 1979, 123 orr.; Pierre HOURMAT, *Histoire de Bayonne. Des origines à la Révolution Française de 1789*, Baiona, 1986, 55 or. Rikardok Baionan preboste eta Lapurdin bailea ipintzean, bien arteko bitasuna burutu zuela dio autore honek.

ARRIETA, J. Vascones eta Vasconia Accursioren Magna Glossa delakoan. *Eleria*. 1, 1997, 18-27